

2020-07-21eko EZ-OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko uztailaren 21ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ez-ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Lehenengo aipatu behar da Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkatearen Dekretuaren bidez neurri batzuk hartu direla bilera hau egiteko eta Pleno Aretoa txikia dela ikusita, hauek izango dira hartutako neurriak:

1.- Bakarrik bileran zuzenean parte hartuko dute korporatibo hauek: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Beste zinegotziek, bere botoa delegatuko dute bere taldearen bozeramailean idatzi baten bidez. Bozeramaile bakoitzak hainbat boto izango ditu delegazioaren arabera.

Ondorioz:

-Noelia Lataburu Ortiz, Leticia Aristi Oria eta Olaia Nieto Legarra, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Mikel Gotzon Iturbe Saizar zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Jose Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/132 DEKRETUTIK 2020/148 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2020/132 dekretutik 2020/148 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BIGARREN GAIA

2020KO IRURAKO UDALAREN AURREKONTUAREN 1º KREDITU ALDAKETA JAKINARAZTEA.

196/20 dekretua jakinaraztea:

“Ikusita honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketan modalitatekoa, 2020-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita idazkari kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

Ikusita idazkari kontu-hartzailearen aldeko txostena eta onarpen proposamena,

Abenduak 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketan modalitatekoa, 2020-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunekin, kapituluzko laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
2º 4º	Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan gastuak Transferentzia Arruntak	10.000,00 € 9.500,00 €
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		19.500,00 €

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8º	Aktibo Finantzarioak (Diruzaintzaren gerakina)	19.500,00 €
FINANTZAKETA GUZTIRA		19.500,00 €

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe, irmoa eta exekutiboa denez, bidezkoa da kontu-hartzaile Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- Udalbatzari berri ematea egingo den lehen bileran.”

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2020KO IRURAKO UDALAREN AURREKONTUAREN 2º KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKO.

Honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Elkateak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bost boto alde (EH Bildu) eta lau abstentzio(EAJ/PNV), legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onartzea honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du oraindik denbora asko falta dela urtea amaitzeko, baina orain dagoen egoera okertu daitekeela, eta horregatik ados daudela idazkariaren txostenarekin, defizita txikiago izateko. Ez dakigu zenbat diru sarrera izango diren urtea amaitzeko eta aukera dagoela gastuak gehiago murrizteko.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALERRIAN DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA IZAN ETA TRATAMENDUA BEHAR DUTEN PERTSONEN FAMILIEI EDO INTERESATUEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA UDAL ORDENANTZARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKO.

Udal honek udalerrian bizi diren eta desgaitasuna/mendekotasuna duten pertsonen edo hauen familiei, horretarako behar duten tratamenduaren gastuaren zama arintzeko dirulaguntzak emateko Araudiaren Oinarriak onartu ziren eta horrekin batera baita 2020rako deialdia ere.

Udalak datozen urteetako etengabeko diru laguntza ezarri nahi duela eta kontuan hartuta, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.2. artikuluan xedatutakoaren arabera:

“Tokiko korporazioen diru-laguntzen arau-oinarriak onartu behar dira aurrekontuen exekuzio oinarrien barruan, diru laguntzen arau orokor baten bidez edo diru-laguntza mota

Este Ayuntamiento para aliviar la carga del gasto del tratamiento por discapacidad/dependencia a personas que lo requieran o a familias quiere establecer ayudas económicas y así mismo la convocatoria para 2020.

Considerando que este Ayuntamiento tiene la intención de establecer la subvención con carácter permanente en los próximos ejercicios y que de acuerdo con lo dispuesto en el art. 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

“Las bases reguladoras de las subvenciones de la corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las

desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez”

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 3an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Ordenantza Arautzaileari eta jendaurrean jarri zen. Iragarria 2020ko martxoaren 13an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Alarma-egoeraren deklarazioak administrazio-epe guztiak eten ditu, eta jendaurreko informazio-aldia luzatu du, 2020ko uztailaren 16ra arte.

Ez da izan alegaziorik edo erreklamaziorik.

Eta hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- *“Irurako udalerrian desgaitasuna /mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza”*ri behin betiko onarpena ematea.

2.- Testu argitaratzea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/985 Legearen 49. eta 70. Artikuluen eta Herri Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikulua adierazitakoarekin ados.

distintas modalidades de subvención.”

Este Pleno en sesión desarrollada el 3 de marzo de 2020, aprobó inicialmente la Ordenanza Reguladora y su exposición al público. Dicha exposición se inició con su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 13 de marzo de 2020.

La declaración del estado de alarma ha suspendido todos los plazos administrativos y prolongado el periodo de información pública, que se extiende hasta el 16 de julio de 2020.

No se ha producido reclamación o alegación alguna.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, aprobar el siguiente:

ACUERDO:

1.- Aprobar definitivamente la *“Ordenanza Municipal para la aprobación de las bases para la concesión de subvenciones a familias o personas interesadas con discapacidad/dependencia que requieran tratamiento, en el municipio de Irura.”*

2.- Proceder a la publicación del texto conforme a los artículos 49 y 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y art.131 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

BOSGARREN GAIA

2021ERAKO TOKIKO JAIA IZENDATZEA.

2021. urteko Irurako tokiko jaia aukeratu behar da.
Hori ikusita, Udalbatzak aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1. 2021. urteko Irurako udalerriko tokiko jaia irailaren 29a, San Migel eguna izatea.
2. Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailari jakinaraztea.

SEIGARREN GAIA

GALDE -ERREGUAK.

Ez dago.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:40an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA